Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Luziana Biain Biain

Oñati, Gipuzkoa (1921-2012)



Aurkibidea

Biografia



1921eko maiatzaren 30ean jaio zen, Murgia auzoko Jauregi baserrian. Aita Jauregikoa eta ama Murgia auzoko Arretxe baserrikoak ziren. Sei alaba izan zituzten, Luziana bosgarrena. Sei urterekin plazako eskolan hasi zen, Doña Cervina maistrarekin. Handitxoagoa zela Ospitaleko eskolara pasatu zen eta 14 urtera arte Sor Elisearekin ikasi zuen. Lau urtetan neskame jardun zuen, Oñatiko notario durangarra zenaren etxean. Ahizpa bat Kuban eta beste bat Frantzian hil zitzaion, bizi osoan zehar moja izan eta gero. Ez da inoiz ezkondu. Jauregi baserrian eman du bere bizi osoa.

Zintak

ONA-100

- **Proiektua**: Oñatiko Murgia auzoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Altube Irizar, Fermin
- **Data**:
- **Iraupena**: 70 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Altube Irizar, Fermin

ONA-106

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-09-05
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

ONA-210

- **Proiektua**: Oñatiko Murgia auzoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Altube Irizar, Fermin
- **Data**:
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Altube Irizar, Fermin

ONA-211

- **Proiektua**: Oñatiko Murgia auzoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Altube Irizar, Fermin
- **Data**:
- **Iraupena**: 32 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Altube Irizar, Fermin

Pasarteak

1. Eskola garaia

- **Erref**: ONA-106/002
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:01:47. **Bukatu**: 00:03:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Gerra aurretik ibili zen eskolan. Neguan bakarrik joaten ziren eskolara. Lehenengo plazan ibili zen, eskola nazionaletan, eta gero ospitalean. Erdaraz ikasten zuten irakurtzen, baina dotrina euskaraz. Ahizpa zaharragoek euskaraz idazten ikasi zuten. Sei urterekin hasi zen eskolan.

2. Eliza kontuak euskaraz

- **Erref**: ONA-106/003
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:03:49. **Bukatu**: 00:05:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Doña Fermina maistra erdalduna zen, plazakoa. Eta ospitalean, Sor Elisea. Zigor handirik ez zuten, belauniko jartzea bai. Euskaraz egitea libre zen. Dotrina eta elizako gauzak euskaraz.

3. Umetako jolasak

- **Erref**: ONA-106/005
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:05:37. **Bukatu**: 00:06:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Jolasak: sokasaltoan, txerrefika pilotarekin, harrapo-harrapoka... Txirikiletan, pote-poteka, gorde-gordeka. Arbolarik arbola ere bai. Neska-mutikoak elkarrekin ibiltzen ziren.

4. Neska eta mutil, nork bere eskola

- **Erref**: ONA-106/006
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:06:53. **Bukatu**: 00:08:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Adinaren arabera zeuden banatuta gelak, auzo-eskoletan ez bezala. Neskak eta mutilak aparte; mutilak maristetara joaten ziren, eta eskola nazionala Santa Marinan zegoen. Murgian ez zegoen eskolarik, Berezaon bai.

5. Esnea partitzen

- **Erref**: ONA-106/008
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:08:18. **Bukatu**: 00:09:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Berezaoko eskola gertuago egon arren, kalerako ohitura zuten. Esne partitzen zuten eskolara joan aurretik. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Arratsaldean eskulanak egiten zituzten, tapeteak eta.

6. Gerra hasi zenean

- **Erref**: ONA-106/009
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:09:23. **Bukatu**: 00:11:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:
Gerra noiz hasi zen. Karobia erretzen zebiltzala sartu ziren erreketeak, bi aldetatik. Milizianorik ez zen egon, soldaduak bai. Oinez joaten ziren Bergararaino, dantza egiteagatik, Oñatin ez zegoelako. Arrasateko asko joan zen Oñatira bizitzera, ihesi.

Transkripzioa
- Nik zierto-ziertua eztakitt /ez dakitt/ gerria noiz hasi zan, solamente ba, ze esangot /esango dot/ gu karobi erreten gebitzela bai, eta nik hamabost urte neukala, ba reketiak nola sartu zian, batian batetik eta bestian

bestetik, ta gu bilddurrez .
- Ze aldetatik sartu zian ba reketiak, ze...?
- Aloña aldetik, Miñagoitti hor goittik eta Olabarrieta aldetik, ya hartuta eukain dana reketiak.
- Eta hemen milizianuak etzian /ez zian/ egon?
- Milizianuak? Ez. Hemen soldauak egon zian baiña milizianorik etza /ez zan/ egon, soldauak bai, soldauak hemen egon zian denpora gutxixan e? Ta gero hemendik Bergarara fan zian. Ta gu faten giñan Bergarara dantza ittiatik oiñez, bandadak...
- Soldauakin dantza ittera?
- Soldauakin dantza ittera, han musikia egoten zan ta.
- Ta hemen, Oñatiko plazan, etzan /ez zan/ musikarik egoten?
- Etzan /ez zan/ egoten.

7. Erreketeak

- **Erref**: ONA-106/010
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:11:27. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Auzora ez ziren sartu erreketeak, Goienetxeatik jaitsi ziren herrira. Intxorta aldean tiroketa asko egon zen, eta Oñatitik ere entzuten ziren.

8. Baserriko lanetan eta neskame

- **Erref**: ONA-106/011
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:15:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Etxean ganadua zuten, lauzpabost behi. Esne apur bat kalera saltzen zuten. Aitajauna etxean bizi zen, gerra urtean hil zen. Neskame joan ziren ahizpa gehienak. Bera notarioaren etxean egon zen lanean, Gomendio etxean, lau urtez. 20 urterekin hasi zen. Gero ere joan zen. Sebastian Gabiola durangarra.

9. Plazara saltzera

- **Erref**: ONA-106/015
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:17:36. **Bukatu**: 00:19:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Morroirik ez zuten izan baserrian. Baratze txiki bat eta soro asko zituzten. Garia, artoa, babarruna... Arrautzak zituzten, saltzeko. Plazara joaten ziren saltzera. Gereziak, sagarrak, okaranak... Goizean goiz joaten ziren plazara, bizkarrean hartuta. Sagardorik ez zuten egiten.

10. Artoa sartzen

- **Erref**: ONA-106/019
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:22:49. **Bukatu**: 00:24:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Baserriko lanak. Area, burdin-area... Arto sartzen hiru bizilagun ibiltzen ziren, alerik ale. "Leakua" zer zen. Elorrixakoak-eta, mordoa elkartzen ziren, baina lana ere asko zegoelako.

11. Gari-jotzeko makinak

- **Erref**: ONA-106/021
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:28:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Leakuaren ondoren makina etorri zen, eta hura ere hiruna zen. Txandaka erabiltzen zuten. Gari-jotzeko makina ere bazuten. Gero, makina handia etorri zen; baserriz baserri ibiltzen zen. Egun bakarrean birena egiten zuen. Dirutan ordaintzen zioten. Garia entregatzen zuten udaletxean, etxean falta arren. Maizterrak ziren.

12. Garia erre, ereiteko

- **Erref**: ONA-106/022
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:28:07. **Bukatu**: 00:31:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia nola lotzen zen. Botika botatzen zitzaion, erre, ez usteltzeko. Ganbaran lehortzen zen, erein aurretik. Kare biziarekin erretzen zen, desinfektatu, botika etorri aurretik. Gari neurriak: miña eta fanega.

13. Gari lekuak

- **Erref**: ONA-106/024
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:32:16. **Bukatu**: 00:33:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Artoa elkarrekin, baina garia bakoitzak berea ereiten zuen. Ebakitzera bai, joaten ziren Azkarretara. Gari lekuak. Toki batzuetan beranduago heltzen zen garia, batera erein arren.

14. Estraperloa

- **Erref**: ONA-106/025
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:33:56. **Bukatu**: 00:35:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Kupoan zer eramaten zuten ez du gogoratzen, gariaz aparte. Garia non ehotzen zuten: Santakrutzenen eta Tokillon. Estraperloan Araotzera joaten ziren, garia ehotzera, astoarekin. Errotak itxita egon ziren, baina Guardia Zibilak ezikusia egiten zuen zerbait emanez gero.

15. Dantza egitera Olabarrietara

- **Erref**: ONA-106/028
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:36:49. **Bukatu**: 00:38:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Dantza egitera nora joaten ziren. Olabarrietara joaten ziren. Murgian Asentzio Eguna ospatzen zen. Filamornika eta jazbana egoten ziren. Olabarrietara joaten ziren domeketan; musika normaldu zenean, plazara.

16. Bi ahizpa moja

- **Erref**: ONA-106/034
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:40:22. **Bukatu**: 00:42:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Beti Jauregi baserrian bizi izan da. Neskame zegoela ere sarri joaten zen. Ahizpa hil egin zen, aita ere bai, eta bera geratu zen etxeko kargu. Amama lanak egin ditu. Bi ahizpa moja joan ziren. Bata Fidel Castrorekin ibili zen, Guadarraman. Kristalezko galtzak Kubatik ekarri zizkion ahizpak, galtza finak.

17. Itsasoa umetan ikusi zuen

- **Erref**: ONA-106/042
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:51:35. **Bukatu**: 00:53:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Itsasoa noiz ikusi zuen lehen aldiz. Dotrinatik joaten ziren, txangoan. Debara, Zumaiara, Zarautzera... Donostiara ere bai. Bazkaria eramaten zuten, zapata kaxan. Autobusez joaten ziren.

18. Trena

- **Erref**: ONA-106/046
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:54:16. **Bukatu**: 00:54:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Lehenengo aldiz Bergarara joateko hartu zuen trena, Pazkoatan. Oinez joaten ziren bestela.

19. Dirua eta medikuak

- **Erref**: ONA-106/048
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:56:25. **Bukatu**: 00:58:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Dirurik ez zen egoten orduan. Errenta ordainduz gero, pozik. Medikuena ere kobratu egiten zuten urtero. Don Jose Maria Arzelus medikua, Don Bizenteren aita. Jose Mari Galarza behar handia zegoenean bakarrik joaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com